

8-Funtsezko baliabideak

Gure asistentea aurrera ateratzeko, funtsezkoak dira ordenagailu onak eukitzea, izan ere, gure inteligentzia artifiziala programatu behar dugu ondo funtzionatzeko. Horrez gain, sistema ez okertzeko, programatzaile talde bat behar dugu. Puntu oso garrantzitsu bat ere da segurtasun sistema izatea Softwarean hackeoak ekiditzeko. Hasieran, halaere, guk bakarrik egiteko asmoa da. Gure ideia ez da programatzea, baizik eta agenteak ulertzea eta haien artean konexioak egitea gero gure azken produktua bateratzeko. Baina guzti horren aurretik, kodea ulertu edo aurretik, ondo argi eta efizienteki jarri behar dugu gure proposamena nola saldu, eta horretarako bakarrik mugikorra eta datuak behar dira. Baliabideak ez dira oso konplexuak, eta gauza ona da daukan eskalabilitatearekin, mobiletik eta automatizazioak egiteko ordenagailu batekin has gaitezke, eta hortik enpresa oso handi batera eskalatzeko aukera ematen du proiektuak, azkenengo momentuan, ia enpresa oso handi bat izanda, baliabideak ordenagailuak, instalazioak konexio onarekin... izan beharko lirateke, baita langileak ere, adibidez, ingeniariak, marketing eta finantzetakoak, eta ingeniariak. Orduan, hasieran ordaindu beharreko baliabideak oso murrizak dira, mobil bat eta ordenagailu batekin hasi gaitezkelarik.



